



Soziolinguistika albistaria

15. zenbakia
2017ko maiatzak 11 - 24

Soziolinguistika Klusterreko albistekak

2016ko memoria argitaratu da

Soziolinguistika Klusterrak 2016. urteko memoria argitaratu berri du. Bertan zerrendatzen dira elkarteak ikerketa, garapen eta berrikuntzan burututako egitasmo eta proiektuak, bai eta urtean zehar egin duen ezagutzaren kudeaketa arloko xehetasunak ere.

Eskuragarri dago "Aldahitz Ikerketa. Eusle metodologia esperientzien emaitzak 2013-2016" argitalpena

Atzo aurkeztu genituen Aldahitz Ikerketaren baitan, Eusle metodologia aplikatuz, 2013 eta 2016 artean, 13 lantoki publiko eta pribatutan garaturiko esperientzien emaitzak. Datuek erakusten dute baldintza egokietan posible dela lankide arteko hizkuntza ohiturak gaztel...

Matrikula murriztua maiatzaren 31 arte EHUko Udako Ikastaroetan

Soziolinguistika Klusterrak bi ikastaro eskainiko ditu aurtengo EHUko XXXVI. Udako Ikastaroetan eta bertan parte hartu nahi izanez gero, matrikula murriztua da maiatzaren 31 arte.

Ikerketak

Euskararen erabilerak %20 egin al dezake gora astebetean?

(Argia) Konpromisoa hartu duzu. Zerrenda osatu duzu zure etxekeekin, lagunekin, lankideekin eta ezagunekin. Denek euskaraz ulertzen dute. Zure erronka astebetez haiei euskara hutsean egitea izango da. Lasarte-Orian egin zuten erronka hori eta partaideei hiru aldiz ga...

Hitanoa Azpeitian: zaharrek %30 haurrek %5,5

(Argia) Hamar elkarrizketetatik zortzi izaten dira euskaraz Azpeitiko kaleetan. Euskararen arnasmune izanik, hitanoa ere bizirik dago, herritar askok erabiltzen dute. Azken urteotan, ordea, kezka zabaldu da herrian; antzeman dute gazteek gutxiago erabiltzen dutela eta hitano...

Afrikako eleaniztasun ikaragarria

(Azkue Fundazioa) Afrobarometer webguneko sarrera honetan Afrikako hizkuntza aberastuna eta eleaniztasunari buruzko ikerketa bat partekatzen dute. Ikerketak eleaniztasunaren egoera hiru mailatan aztertzen du: banakako mailan, komunitate mailan eta herrialde mailan, ...

Langue et éducation au Québec

(Office québécois de la langue française) Éducation préscolaire et enseignement primaire et secondaire. Enseignement collégial

Jardunaldiak, hitzaldiak eta ikastaroak

Datorren urtera arte agurtu da Udaltop

(Udaltop) Amaitu dira Udaltop, Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketak. Aurtengoak marka guztiak hautsi eta merezitako agur berezia jaso du piano baten soinuaz, Xabier Lizasoren, piano-jolearen eta Andoni Egañaren, bertsolariaren, eskutik. Ederra izan da. 275 partaide inguru, ...

- [Hitzaldien bideoak ikusgai \(Udaltop\)](#)
- [Hizkuntza ohituratan eragiteko elkarlaneko ekimen berria aurkeztu da \(Topagunea\)](#)

IkerGazte 2017 kongresuak helburuak bete ditu

(Unibertsitatea.net) Antolatzaileak pozik daude, hitz onak baino ez dituzte. Apustu handia izanik, arrakastatsua izan delako, gauzak findu direlako, erreferentzia bihurtzen ari delako.

Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen, e5 proiektuaren 1. mintegia

(Eusko Ikaskuntza) Egun euskalgintzaren eta euskararen biziberritzearen krisi aktiboari erantzun nahi dio egitasmo honek. Euskaraz garatu nahi duen komunitateari zuzendutako egitasmo honetan zu ere partaide izatea nahi dugu.

International Conference on Language, Economy and Tourism

(Network to Promote Linguistic Diversity) Tourism can provide unlimited opportunities for economic development and can become an important source of income and employment. It can also provide local communities with the opportunity to express pride in their own...

Appel à communications - Question autour de l'oral : de l'interdisciplinarité à la complexité

(Conseil supérieur de la langue française) Un appel à communications pour le colloque « Question autour de l'oral : de l'interdisciplinarité à la complexité » a été lancé par la Faculté des Lettres et des Langues de l'Université de Blida 2 (Algérie).

Liburuak eta artikulu zientifikoak¹

HABE Liburutegia. Eskuratu berriak:

- Michele Gazzola and Bengt-Arne Wickström: *The economics of language policy*
- Heiko F. Marten, Michael Riessler, Janne Saarikivi, Reetta Toivanen: *Cultural and linguistic minorities in the Russian Federation and the European Union*
- Aviv Amit: *Regional language policies in France during World War II*

Jarrerak, gaitasunak eta erabilerak

(Argia) Txepetxek argi adierazi zuen eta, gaur egun ere, nazioarte mailako hizkuntza plangintzari buruzko ikerketek hiru arlo nagusiri egiten diete erreferentzia (integralak izan gura badute): jarrerei, gaitasunei eta erabilerei. Hiru horiei ere egiten diete errefere...

Euskalgintzaren eraldaketak

(Argia) Mari Luz Estebanek “Feminismoa eta politikaren eraldaketak” izeneko liburua argitaratu berri du Susa argitaletxearekin. Azken urteotan askotan bihurritu dugu burua euskalgintzatik feminismora, argi bila-edo. Nire ustez, liburu horretatik ere irakasbide ed...

Seminaris de Sociolingüística i Política lingüística del CUSC-UB

(CUSC-UB) Accessible en línia el resum del seminari de divendres passat, en el qual vam parlar amb Emili Boix sobre la didàctica de la sociolingüística catalana. El ponent va començar lamentant precisament que, enca...

¹ Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira](mailto:liburutegi@habe.eus) (liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Miquel Àngel Pradilla, en un article sobre sociolingüística valenciana

(*Xarxa CRUSCAT*) Els experts coincideixen en la necessitat d'una política lingüística activa per a evitar la "minorització" del valencià.

Bestelako albisteak

"Egingarriagoa da hizkuntza ohiturak taldean aldatzea"

(*Berria*) Generalitateko hizkuntza politikako zuzendaria izan zen, eta Kataluniako Soziolingüistika Institutuko burua. Hizkuntza ohiturak nola aldatu, horri buruz aritu da asteen Udaltopen.

Aktibazio egitasmoak herriz-herri hedatzen doaz

(*Topagunea*) Hizkuntza ohituratan aldaketak eragiteko helburuz sortutako gizarte-aktibazio egitasmoek herriz-herri hedatzen jarraitzen dute, formatu eta itxura ezberdinak hartuz. Donostiako Egia auzoan abiatutako dinamika hainbat herritara heldu da orain arte (Agurain...

Txillardegiren testu guztiak atari berean bildu ditu Jakinek

(*Berria*) Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi hizkuntzalari, pentsalari eta idazlearen obra osoa digitalizatu du Jakinek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Hiru urteko lana izan da obra guztia biltzea eta katalogatzea, eta orain, sareko atari batean jaso...

Euskar4.0

(*Gipuzkoako Foru Aldundia*) Ikerketa eta berrikuntza lehentasunetan jarri ditu Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritzak. Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok bide berriak urratzeko premia eta determinazioa azpimarratu ditu Euskar4.0 jardunaldian.

Nasak, zapalkuntzaren gainetik, identitatearen alde borrokan

(*Garabide*) Kolonbiako hizkuntza ofizial bakarra gaztelania da, 1499an espainiarrek Mundu Zaharretik eramanda Kolonbian sartu zutena eta 500 urte baino gehiagotan zehar bertako hizkuntzak ordezkatu dituen. Hala ere, herrialdean oraindik 65 mintzaira indigena existitzen dira, 19...

Armeniako hizkuntza gutxituen oztopo nagusiak

(*Azkue Fundazioa*) Artikulu honetan adierazten dutenez, baliabide falta eta agintarien pasibotasuna dira Armeniako hizkuntza gutxituen arazo nagusiak. Berez, Armeniako herritarrek errespetuzko jarrera agertzen dute bertako hizkuntza eta kulturekiko eta gainera badirud...

Hizkuntza biziberritzea hizpide duen “arNASA txiKITXUAK” dokumentala estreinatuko da Bermeon, maiatzaren 26an

(Garabide) 2015ean plazaratu genuen “Beltzean Mintzo” (hemen ikusgai) filmarekin Garabide Elkartearen jorratzen dugun hizkuntza lankidetzak zertan datzan azaldu nahi izan genuen. Oraingoan, aldiz, ildo horretan sakontzera gatoz, hau da, andeetako Nasa eta Kitxua hizkuntza-komunitateak...



BABESLEA



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**

BAZKIDE PARTAIDEA

emun
HIZKUNTZA ZERBITZUAK